



Gorka Valcarlos, Adur Alberdi, Aitzol Ortiz, Leire Aldaregia eta Eneko Lopez jai batzordeko kideak. **OLATZ BALDA**

Takoidun oinkadekin ospatuko dituzte Amarako jaiak

Uztailaren 26tik 31ra bitarte festa giroa nagusituko da Amaran. Aldarrikapen feministak eta «etxeko giroa» erdigunean, adin tarte guztientzako jarduera andana antolatu dute. Umorea lagun izango dute gau partean, eta egunez, jana eta edana ez dira faltatuko.

📍 Olatz Balda Sagarzazu

Hilabeteak eman dituzte lanean Amarako Jai Batzordean, jai «seguruak eta gozagarriak» izateko helburuarekin. Dozena erdi lagun inguruk osatzen du taldea, eta auzoko komertzioen eta tabernen laguntzarekin, gustu eta adin guztietarako egitarau zabala ondu dute, auzokide guztiek Easo plazako festa giroaz gozatzeko

aukera izan dezaten. Gaur eguerdian egingo dituzte lehen jarduerak, baina arratsean lehertuko da festa, pregoiarekin: «Bost urte dira auzoko talde feminista sortu zutela eta berezia izango da Zapi Moreak taldeak pregoia egitea», azaldu du Gorka Valcarlos jai batzordeko kideak (Amara, 1992).

Aurten, sei egun izango dituzte

amaratarrek auzoko festa giroaz gozatzeko: «Hori bai, uztailaren 29an atsedeen eguna izango dugu», zehaztu du Valcarlosek. Etenaldi bat egingo dute jaien ekuatorea pasatu bezain laster, indarrak hartu eta bigarren zatiari gogotsu ekiteko. Horren ondorengatik, izango dute, hain zuzen, indartu berri duten Haurren Eguna: «Haurrentzako jarduera kopurua handitu dugu eta kirol egokituko jardueretan ere parte hartzeko aukera izango dute», azaldu du kideak.

Takoiak zein kroketak, gau giroan

Ohi moduan, auzokide andana elkar-tzen dituen danborrada, bazkariak, karaokea, sardina jana eta txarangak ez dira faltatuko. «Oso etxekoak» dira jaiak, kideen arabera, eta etxekoan partaidetza bermatzea dute xede, jai batzordean: «Ia jubilatuz osaturiko txaranga bat dugu eta polita da, ia denak auzokideak edo auzoan ibilitakoak direlako. Jende ez hain gaztea giro horretan ikusteak ere ilusioa eragiten digu, auzoa guztiok gara eta». Gertuko giro hori gaueko

emanaldietan ere islatzen saiatzen dira, baina kontzertuak lotzeko ataza horretan zailtasun handiagoak izan ohi dituzte; besteak beste, eskakizunak ere gehiago izaten baitira: «Talde hasiberriak hartzen ditugu, beren baitan emakumezko zein gizonezkoak dituztenak eta auzokoak edo Donostiakoak direnak».

Gauean, kontzertuak ez ezik, jarduerak ere izango dituzte, urteroko legez. Aurten, gainera, hainbat berri-tasun gehitu dituzte Gazte Egunari begira: «*Drag* ikuskizuna aurrenekoz izango genuela jakinda, pare bat kidek takoi lasterketa egitea proposatu zuten», adierazi du jai batzordeko Aitzol Ortiz kideak (Amara, 2004). Gainerako kideek adierazi dutenez, txantxa gisa botatako ideia asko «tradizio» bilakatzen dira eta, aurretik sokasaltoarekin eta giza kroketa txapelketarekin egin duten moduan, kirol jarduera berriari ere urte luzeko ibilbidea opa diote.

Festak gau eta egun ospatzen diren arren, askotan, giroari kolore puntu bat falta zaiola iritzi dute jai batzordeko kideek. Hala, auzokideak blusak egitera animatu dituzte: «Belaunaldika ditugu blusak eta zerbait itxia dirudi. Horregatik, jendea animatu nahi dugu blusa egitera eta janztera; edo blusarik ezean, lagun taldeko kideen artean kamiseta berdina eramatera».

Protokoloak prest

Aurten, iaz egin zuten moduan, eraso sexisten aurkako protokoloa prestatu du Zapi Moreak taldeak. Erreferentziako gunea izateaz gain, telefono zenbakia egongo da eskuragarri eta lantalde feministako kideak jai gunean ibiliko dira, besoetan zapi more bat jantzita. Berrikuntza gisa, baina, gatazka orokorretarako protokoloa izango dute aurrenekoz, jai eremuko gatazka orori irtenbidea emateko. «Beste jai batzuk izan ditugu erreferentzia gisa, eta, gehienbat prebentzio moduan jarri dugu, arazo baten aurrean nora joan jakin dezaten», azaldu du Ortizek. Amaran, beraz, gozagarria bezain segurua den «etxe-ko giroa» izango da nagusi. ●

Irutxuloko Hitza



OSTIRALA 26

Gazte eguna

12:00

Paella prestaketa.

14:30

Gazte bazkaria.

16:30

Euskoktel dastaketa.

17:00

Xake txapelketa.

18:00

Gazte argazkia.

18:30

Kartelada.

19:00

Presoen aldeko brindisa.
Pregoia eta ostean erraldoi eta buruhandiak.
Jai seguruen aldeko argazkia.
Kontzertua Bodeguillan.

20:00

Punttukakotx elektrotxaranga.
Sardina jatea.

22:00

Zezensuzkoa.

22:30

Kontzertuak: Nenu, Sukena eta
Expuela DJ-a. Takoi lasterketa eta
sokasaltoa.

LARUNBATA 27

10:30

Marmitako txapelketa.

13:00

Kontzertua Bodeguillan.

13:30

Marmitako txapelketako
sari banaketa.

14:30

Herri bazkaria.

17:00

Mus txapelketa.

17:30

Pala finala.

19:00

Ardo dastaketa.
Buruhandiak.
Javierren DJ-a.

20:00

Danborrada Pasai txarangarekin.

22:00

Zezensuzkoa.
Kontzertuak: Mexikortxos, Neskatasuna, eta
Oliba eta Antxoa DJ-ak.

IGANDEA 28

11:00

Herri krosa.

12:00Tortilla txapelketa.
Dantza emanaldia.**13:00**

Eskrima egokitua.

18:00Helduentzako antzerkia.
Hiruxtulo txaranga.**19:00**

Buruhandiak.

20:00Salsa Batxata *queer*.**22:00**

Karaokea eta Piru DJ-a.



ASTEARTEA 30

Haurren eguna

11:00

Haurrentzako eskulan tailerra.

12:30

Apar festa.

14:00

Haur bazkaria.

15:00

Bingo musikatua.

16:00*Arima* disko festa.**18:00**Haurrentzako
antzerkia.**19:00**Buruhandiak eta erraldoiak.
El Tapao txaranga.**20:00**Botea.
Kontzertua Urbanen.**22:00**

Zezensuzkoa.

23:00

3ttu erromeria.

00:30

Giza kroketa txapelketa.

ASTEAZKENA 31

18:00

Plaza dantzak.

19:00

Toka.

20:30

Buruhandiak. Oilasko jana.

00:00

Jaien amaiera.



basmodec

Gora Amarako jaiak!

ZURE PINTURA DENDA

BENTA BERRI

Jose Goikoa Z/G
943 15 55 79

GROS

Secundino Esnaola, 19
943 28 26 11

AMARA

Eustasio Amilibia, 11
943 45 67 04

BEASAIN

Oriamendi, 21
943 88 08 63

HERNANI

Akarregi Poligonoa, Pab.3A
943 52 16 50